Horren berri eman zen martxoaren 19ko 2/14 zenbakiko Kontuen Batzorde Berezian eta Ogasuna, Ondarea, Barne Erregimena eta Langileak Informazio Batzordean.

Udalbatza Osoaren aurrean aurkeztu da 5/2013 Foru Araua betetzeari buruzko txostena, 2014ko aurrekontuari dagokionez. Izan ere, aurrekontu-egonkortasuna ebaluatzeko txostenaren ondorioa da badagoela finantzatzeko gaitasuna, zehazki, 417.244,78 €-ko superabita. Halaber, 5/2013 Foru Araua ere bete da, gastu-arauari erreparatuz gero. Horren harira, 2014ko aurrekontua 1.748.475,58 €-koa izanik, gastu konputagarriko gastu-arauaren muga 2.005.219,87 €-koa da. Hala, aldea -256.744,29 €-koa da, hots, gastu konputagarriaren igoera negatiboa izan da (% -10,69).

Horren berri eman zaio Udalbatza Osoari, eta jakinaren gainean geratu da.

5.- ZUZENTZEA, BIDEZKOA BADA, UDALBATZA OSOAK 2014ko URTARRILAREN 30ean HARTUTAKO ERABAKIA, “ISMAEL FIDALGO BLANCO URBANIZAZIO” BERRIAREN IZENA ALDATU ETA HORREN ORDEZ “ISMAEL FIDALGO MARGOLARIA URBANIZAZIOA” IZENA JARTZEKO.

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak martxoaren 19an eginiko 2/14 zenbakiko bilkuran, kalearen izena aldatzeko proposamenaren aldeko txostena eman zuten aho batez; izen berria “Ismael Fidalgo margolaria urbanizazioa” izatea proposatu zen. Halaber, exijitu zuten kartela ele bietan jartzeko, hots, euskaraz eta gaztelaniaz.

Berlaratuek aho batez erabaki dute onetsitako izena zuzentzea eta San Pedron eraikitzen ari diren urbanizazio berria “Ismael Fidalgo margolaria urbanizazioa” izatea. Horren bidez, omenaldia egin nahi zaio Ismael Fidalgo Blanco margolariari, urbanizazio berriari bere izena jarritz.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA.

Udalbatza Osoaren Kontuak Batzordeak martxoaren 19an eginiko 2/14 zenbakiko bilkuran, bertaratuek aho batez eman zuten Sopuertako Udalak martxoaren 8rako, hots, Emakumeen Nazioarteko Egunerako eginiko adierazpenaren aldeko txostena.

Horren berri dutenez, irakurritakotzat eman da.

Bertaratuek aho batez erabaki dute Sopuertako Udalaren adierazpena onestea, martxoaren 8an egiten den Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta eginikoa. Hauxe dio adierazpenak:

“Martxoaren 8ko adierazpena

EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA

Martxoaren 8a, Emakumeon Eguna. Urteetako borroka gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina, batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.

Krisiaren itzalpean kapitala eta patriarkatua, moztorra kendu dute. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara. Inboluzio une batean gaude. Historia ez da lineala eta ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.

Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokia Estatuaren lurralde bihurtuta eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexual tradizionalarekin bat egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta.

Lan-merkatuan gero eta biluziago gaude emakumeok. Botere ekonomikoaren mesedetan arautzen ari da lan-mundua, lanerako gorputza, burua eta eskuak besterik ez ditugunok babesik gabe utziz. Haurdun dauden emakumeak kaleratzeko aukera legeztatu da, lan-baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeak nagusi diren hirugarren sektorean bereziki, eta sektore feminizatuetan behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta prekaritatea dira nagusi. Horrekin batera, lan-merkatutik kanpo uzten ditugun etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute, pertsonen zaintza luxua balitz, horretarako dauden zerbitzuak eta laguntzak murriztuz eta.

Gure gorputza gurea dela ukatu nahi digute. Gure umetokia Estatu-arazoa bihurtu dute, baina arazoa ez da izango emakumeak garela?. Espainiako Gobernuak

abortatzeko eskubidea ukatzeko kontrarreformarekin, emakumeok ama-emazte izan behar dugun ideologia ultrari erantzuten dio eta duela 40 urte oihukatutako aldarriak berriz etorri zaizkigu umetokietatik eztarrietara.

Abortuaren kontrarreformarekin batera, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago datoz, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzeko neurriak bitarte: Ugalketa lagundurako eskubidea bikote heterosexualentzat soilik, haurdun geratzen den emakume oro haurra izatera behartu, norberaren gorputza eta desioak ezagutu eta garatzeko sexu-hezkuntza murriztu edo LOMCerekin guztiz ezabatu, elizgizon esanguratsuen ahotik sexu bereko pertsonen arteko harremanak gaixotasun gisa aurkeztu nahi dizkigute, eta indarkeria sexistaren dimentsioa ezkutatu, garrantzia kenduz, datuak makilatuz eta batzuetan justifikatuz. Erakunde publikoek eta hedabideek horretan duten ardura ez da txikia.

Emakume eta gizon askeak, buru eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua den ondo dakitenez, LOMCerekin Espainiako Gobernuak berdintasun eta hezkidetzaren alde egindako lana ezabatu eta erlijio katoliko erradikalena erdigunean jarritz, Elizarekin bat sartu nahi dute eskoletan, haurren gogoak kolonizatzeke.

Hedabideetan ere atzerakada garrantzitsua atzematen dugu eta bereziki larria iruditzen zaigu bertako hedabide publikoetan gertatzen ari dena. Aktualitateko arazoen inguruko eztabaida eta tertuliatan emakumeon presentzia anekdotikoa da. Ikus eta entzunezinak gara. Horretaz gain, hedabideetako edukiek eta publizitateak estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Inboluzio itzela sufritzen ari gara. Emakumeok subjektu politiko gisa, eskubide osoko herritar gisa onartzetik gero eta urrunago gaude. Egungo krisia emakumeon askatasunen eta sexuen arteko berdintasunaren krisia ere bada, betebeharreko helburu asko bagenituen ere, atzerapauso nabarmenak ematen ari garelako. Botere politikoek eta ekonomikoek norabide horretan eraman nahi gaituzte, emakumeok berriro ere sistema heteropatriarkalaren kaiolara lotu nahirik.

Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Elkarlanean, emakumeon arteko sare sendoak sortuz, atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egin. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru guztietan, esparru sozio-ekonomikoan, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, inguruko emakume eta gizonekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista eraikitzeke.

Sopuertako Udaleko zinegotziok, Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu lan egiten jarraitzeke konpromisoa hartu nahi dugu.”

“Declaración 8 de Marzo

NUESTRO COMPROMISO POR UNA EUSKAL HERRIA FEMINISTA

8 de Marzo, el día de las mujeres. Es una oportunidad para recordar y celebrar la lucha de tantos años, pero es sobre todo una oportunidad para reflexionar y hacer balance de manera conjunta de la situación actual de las mujeres.

Bajo la sombra de la crisis capital y patriarcado se han quitado la máscara. Las mujeres estamos perdiendo la libertad y los derechos hasta ahora conseguidos. Es un momento de involución. La historia no es lineal y no siempre avanzamos, pero la historia no está escrita y por lo tanto es cambiante. Aún estando en un momento de involución, está en nuestras manos fortalecer la lucha feminista y cambiar la situación a pesar de las dificultades.

Podríamos resumir la actual situación de las mujeres en pocas palabras: cada día más desnudas en el mercado laboral, con el peso de miles de piedras en la mochila de los cuidados, con nuestro útero convertido en territorio Estatal y nuestro cuerpo amoratado por la violencia machista. Todo ello aderezado con ataques ideológicos a quienes no cumplan con el modelo de mujer y de familia heterosexual tradicional.

Las mujeres estamos cada vez más desnudas en el mercado laboral. El mercado laboral se regula en beneficio de los poderes económicos, dejando sin protección a quienes únicamente tenemos cuerpo, cerebro y manos para trabajar. Se ha legitimado el despido a las mujeres embarazadas, las condiciones laborales generales están empeorando mucho y en el sector terciario en el que hay mayoría de mujeres, así como en otros sectores feminizados la temporalidad, prevalecen la falta de seguridad y la precariedad. Además, los trabajos considerados fuera del mercado laboral, como son los trabajos domésticos y los cuidados siguen cayendo sobre espaldas femeninas, reduciendo los servicios y ayudas existentes hasta ahora, como si el cuidado de las personas fuera un lujo.

Quiéren negarnos la propiedad de nuestro cuerpo. Han convertido nuestro útero en problema de Estado, pero el problema no será que somos mujeres? Con la contrarreforma para negarnos el derecho al aborto, el Estado Español responde a la ideología más ultra que relega a las mujeres a ser únicamente madres y esposas, y como hace 40 años, los gritos desgarradores de nuestras entrañas salen hoy por nuestras gargantas.

Con la contrarreforma vienen más ataques contra la libertad y la diversidad de las mujeres para hacernos dóciles y sumisas. Con el patriarcado como columna vertebral y con medidas que potencian el modelo de familia tradicional y heteropatriarcal, como son: ayudar a la reproducción asistida únicamente a parejas heterosexuales, obligar a toda mujer embarazada a ser madre, minimizar al máximo, hasta suprimir totalmente con la LOMCE, la educación sexual que ayuda a conocer y desarrollar nuestro cuerpo y nuestros deseos, y en boca de destacados hombres de Iglesia muestran las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo como enfermedad y quitan importancia a la violencia sexista, maquillando e incluso

justificándola en algunos casos. La responsabilidad de Instituciones Públicas y medios de comunicación es grande.

Saben lo importante que es la educación para ser mujeres y hombres libres, dueños de nuestra mente y nuestro cuerpo, y el Estado Español quiere entrar de mano de la religión católica más radical en las escuelas para colonizar los deseos de niñas y niños, borrando de un plumazo por medio de la LOMCE el trabajo y el camino andado en pro de la igualdad y la coeducación.

También es palpable el retroceso en los medios de comunicación, donde la presencia de mujeres en debates de actualidad es anecdótica. Ni se nos ve, ni se nos escucha. Además, los contenidos y la publicidad de estos medios alimentan estereotipos, roles y valores sexistas, convirtiéndose en un nido plagado de estereotipos.

Estamos sufriendo una grave involución. Cada vez nos alejamos más de la aceptación de las mujeres como sujetos políticos de derecho. La actual crisis es también una crisis de libertad de las mujeres y crisis en la igualdad de derechos entre sexos, porque si aún teníamos muchos objetivos que conseguir, el retroceso que estamos viviendo es impresionante. Los poderes políticos y económicos quieren enjaularnos nuevamente a las mujeres en el sistema heteropatriarcal.

Esta dura lectura de la situación, lejos de hacernos caer en el desánimo, nos debería ayudar a ser conscientes y despertar nuestra respuesta. Crear redes fuertes entre mujeres y de manera conjunta identificar lo perdido y hacerle frente. Y hacer nuestro camino, para ser lo que queremos, mujeres, euskaldunas, libres, lo que cada una quiera. Y extendamos nuestra red a todos los ámbitos, al socio-económico, al kultural, al político e institucional. Y alimentemos nuestras alianzas con los agentes sociales, políticos y sindicales, con las mujeres y hombres de nuestro entorno para construir una Euskal Herria euskalduna y feminista.

La y los concejales del Ayuntamiento de Sopuerta, nos comprometemos a trabajar a favor de una Euskal Herria de mujeres y hombres libres.

Marzo de 2014”

7.- EMILIO GIL JAUNAK JARRITAKO 758/12 APELAZIO ERREKURTSOA DELA ETA 2014ko OTSAILAREN 11n EMANDAKO 80/2014 EPAIAREN BERRI EMATEA.

[...]

Udalbatza Osoari 758/2012 apelazio errekurtsua dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioekiko Auzietarako Salak emandako 80/2014 zenbakiko epaiaren berri eman zaio. Apelatzailea Emilio Gil González jauna da, eta apelatua, aldiz, Sopuertako Udala. Honako hau dio epaiak:

“Zati batean onartu da Emilio Gil González jaunak 202/2012 zenbakiko epaiaren aurka uztailaren 3an jarritako apelazio errekurtsua. Izan ere, aipatu epaiak 1247/2009 errekurtsua gaitzetsi zuen, Sopuertako Udalbatza Osoak 2009ko uztailaren 30ean emandako ebazpenaren kontra jarri zena. Ebazpen horren bitartez

gaitzetsi egin zen Los Cotarros herrigunea zein 294. lursaila hiri lurzorutzat jotzeko eskaera. Hori guztia dela eta, honako hau egin behar dugu:

1. Baliogabetzea apelatutako epaiaren zati bat, onartu egin baita omisiozko inkongruentziaren argudioa.

2. Lehen instantziako eztabaida ebazteko, apelatutako epaiak aztertu ez dituen argudioei eta asmoei zein aztertutako eta gaitzetsitako gainerako arrazoiei dagokienez, **gaitzetsi egin behar ditugu demandarekin gauzatutako asmo guztiak, eta horren ondorioz, berretsi egiten dugu apelatutako epaia gaitzesteko jarrera, hori ebatzi zuen arloari erreparatuta**”.

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

8.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREKIN EGINIKO KUDEAKETEN BERRI EMATEA.

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak martxoaren 19an eginiko 2/14 bilkuran, etxebizitza kolektiboetako kontagailu elektronikoen prozeduraren eta instalazioaren berri eman zen.

[...]

Horren berri emanda, Udalbatza Osoa jakinaren gainean geratu da.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO HIRIGINTZA PLAN NAGUSIA EGITEKO ESPEDIENTEA ABIARAZTEA.

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak martxoaren 19an eginiko 2/14 zenbakiko bilkuran, aho batez eman zen Plan Nagusia egin eta onesteko hirigintza espedientea abiaraztearen aldeko txostena.

[...]

Berlaratuek aho batez erabaki dute Plan Nagusia egiteko prozedura abiaraztea. Idazkari kontu-hartzaileak Plana prestatzeko prozedurari buruzko txostena egin du, eta Udaleko arkitekto aholkulari Julen Madariaga Goirigolzarri jaunari eskatu zaio txostena egin dezala honako alderdi hauei buruz: Plan Nagusia egiteak dakartzan lanen edo zerbitzuen memoria deskribatzailea, fase edo lan bakoitzaren exekuzio-epeak, eta fase edo zerbitzuko zati bakoitzaren aurrekontua. Horren xedea da zerbitzuen kontratuaren kostu osoa zehaztea, baita prozedura osoko zati edo fase

bakoitzerako aurreikus daitekeen gastua ere, aurrerapenaren hasieratik Plana behin betiko onetsi arte. Hartara, asmoa da Plan Nagusian egingo den inbertsioak eragingo duen zenbateko osoa eta urtekoa ezagutzea, eta gastua urte anitzetarako esleitzea Udalaren aurrekontu arruntean.

Erabaki da zinegotzi guztiei igortzea, bilkurako aktaren zirriborroarekin batera, Foru Aldundiak martxoaren 9ko ohiko kontseiluan hartutako erabakia. Horren bidez, hasieran onetsi da Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden landaguneen inbentarioa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.7 artikuluan jasotako agindua betetzeko.

KONTROLA.

10.- AZKEN BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Azken bilkuratik aurrera Alkatetzak emandako ebazpenen berri eman zaio Udalbatza Osoari. Zehazki, otsailaren 17ko 114/14 zenbakidunetik martxoaren 12ko 180/14 zenbakidunera bitarteko dekretuetan jasota daude.

Dekretuen kopiak ohiko bilkuraren deialdia baino lehen igorri zaizkio zinegotzi guztiei, eta beraz, irakurritakotzat eta ezaguntzat jotzen dira. [...]

11.- MOZIOAK.

11.1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KONTRATU PUBLIKOETAN KLAUSULA SOZIALAK TXERTATZEKO MOZIOA.

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak martxoaren 19an eginiko 2/14 zenbakiko bilkuran, aho batez eman zuten honako proposamen honen aldeko txostena: indarrean den legeriaren barruan, egin beharreko kontratu publikoetan “klausula sozialak” txertatzea eta aplikatzea, horiek jasotzen dituzten klausulen plegu berriak egitea, eta amaitzen diren kontratuak berritzea, ez luzatzea. Hori guztia testu honetan adierazitakoaren arabera da:

“Hau guztia kontutan hartuta, Sopuertako udal taldeak ondoko mozio hau aurkezten du, osoko batzarrean eztabaidatu eta udalak bere egin dezan:

4. Udal honek, hemendik aurrerako kontratu eta erosketa publiko guztietan, indarrean dagoen legediak ematen dituen aukerak baliatuz, “klausula sozialak” txertatu eta aplikatzea onartzen du.

5. Udal honek, aipatutako klausula horien lanketa, garapen eta jarraipenerako konpromisoa hartzen du, beharrezko balitz, helburu hori duen lantalde bat sortuaz edo dagokion batzordera bideratuaz.
6. Udal honek, indarrean dauden kontratuen epea amaitzean, hauen luzapena egin ordez, Klausula Sozialak txertatuko dituen plegu berriak egingo du”.

“En base a todo lo anterior, el grupo municipal de Sopuerta presenta la siguiente moción para que sea debatida en pleno y asumida por el Ayuntamiento:

1.- Aprovechando las posibilidades que ofrece la legislación vigente, este Ayuntamiento aprueba incluir y aplicar “cláusulas sociales” en todas las contrataciones y compras públicas que haga de ahora en adelante.

2.- Este Ayuntamiento se compromete a trabajar y desarrollar las cláusulas mencionadas y a hacer seguimiento de las mismas, creando si fuese necesario una comisión específica para ello o derivándolo a la comisión correspondiente.

3.- Una vez que culmine el plazo de los contratos en vigor, este Ayuntamiento, en lugar de prorrogarlos, elaborará nuevos pliegos que recojan las Cláusulas Sociales”

EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile Juan Carlos Hurtado jaunak galdetu du zer nolakoa den kontu hori. Gaineratu du ez duela ulertzen, eta nola egingo den galdetu du. Adierazi du 8 edo 10 urte daramatzala horixe bera eskatzen, eta orain atera dutela hori.

Alkateak erantzun dionez, oker ez badago, Hurtado jaunak beste zenbaitetan eskatu du enpresekin kontratatzen diren obretan herriko langabetuak kontrata ditzatela exekuziorako.

Hurtado jaunak baietz esan du, eta beste udal batzuek horrela jokatzeko dutela.

Berlaratuek aho batez erabaki dute kontratu publikoetan klausula sozialak txertatzeko mozioa onestea.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO

Eguneko aztergaien zerrendako gaiak jorratu ondoren, eta galde-eskeei ekin aurretik, alkateak proposatu du honako mozio hau sartzea bilkurako aztergaien zerrendan.

11.2. MANKOMUNITATEA ESKUALDEKO JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA SUSTATZEKO BURU IZATEARI BURUZKO MOZIOA.

Alkatea hasi da, eta mozioa irakurri du:

“2013ko uztailean, horretarako eraturako eta Enkarterri Greenen forotik sortutako batzorde batek zenbait hilabetez lan egin ondoren, honako alderdi hauek jorratzen dituen txosten bat eman zen:

Ebaluatu ziren udalerrri bakoitzak eskualde mailako erakundeetan jartzen dituen ekonomia eta giza baliabideak, baita jarduera ekonomikoa sustatzera bideratutakoak ere.

Baliabide horien hedadura identifikatu zen.

Antolatzeko sistema bat diseinatu zen prozesu giltzarrietan oinarrituta, Enkarterri Greenen helburuak bultzatzeko asmoz: irudi erkidea ematea eta jarduera ekonomikoa zein lanpostuak sortzen dituzten proiektuak indartzea.

Aipatu zen egokia litzatekeela eskualdeko baliabide gehienak “ibilgailu” bakar batean integratzea, aipatu prozesuak hortik abiatuta bideratzeko.

Profilak identifikatu ziren prozesu horien buru liratekeen profesionalak identifikatzeko, erakunde erkidea eratzeko zain.

Gaur gaurkoz, eskualdeko 11 udalerrri, Mankomunitatea, Enkarterrialde eta Enkartur konpromisoa hartzeko agiria prestatzen ari dira. Testu horretan espirtu bera jaso da, hauxe dio eta: “Epe ertainera ezinbestekotzat jotzen da antolatzeko esparru erkidea egituratzea, gaur egun zenbait erakundetan hedatuta dauden ekonomia eta giza baliabideak biltzen dituen eta horiek eraginkorrago erabiltzea ahalbidetzen duena”. Eraginkortasun kontuak tarteko, hauxe aipatzen da: “Egitura hori lortzeko erdibideko urrats gisa, honako ANTOLAKUNTZA SISTEMA hau diseinatu da, honezkero bultzatzen saiatzen ari garen proiektu zehatzei ekitea ahalbidetuko diguna...”.

Aintzat hartzekoa da foro zehatza eratu behar izan dugula Enkarterri Green ekimenerako, aurretik abian ziren erakunde guztiez gain.

Aintzat hartzekoa da hitzarmen zehatza idatzi behar izan dugula, aurretik abian ziren erakunde guztiez gain, Lanbideren eskualdeko laguntzak eskuratu ahal izateko. Horretarako, Balmasedako Udalak guztion izenean eskatu zuen laguntza.

Aintzat hartzekoa da eskualdeko esparruan Mankomunitatea dela erakunde bakarra non erabakitzeko eskumena duten organoak soilik herritarrek aukeratutako ordezkariak osatuta dagoen, eta bera dela soilik diru publikoaren bidez sostengatzen den bakarra. Horren ondorioz, idazkari kontu-hartzaileak legezko fiskalizazioa egin behar du.

Aurrekari horiek guztiak aintzat hartuta:

Mankomunitateko buruari berariaz eskatzen diogu beharrezko erakunde “ibilgailua” era dezala, bereziki Enkarterri Green ekimenerako, eta oro har eskualdeko enplegua eta jarduera ekonomikoa sustatzeko. Halaber, honako hau egiteko eskatzen diogu, jarraian adierazitako xedeekin:

Alonsotegi eta Balmaseda gonbidatzea Mankomunitateko kide izatera.

Lankidetzaz hitzarmenak izenpetzea Alonsotegi eta Balmasedarekin.

Mankomunitateak bidera dezala ekonomiaren eta enpleguaren sustapena, Behargintzaren (eta langileen) zereginak bere egin ditzala, eta hortaz, Mankomunitateko TGAREN lana indar dezala.

Berak bideratzea eskualdeko turismoaren sustapena, eta horretarako, hala badagokio, egokitzen jotzen diren hitzarmenak izenpe ditzala Enkarterekin.

Berak bideratzea eskualdeko landa garapena, eta horretarako, egokitzen jotzen diren hitzarmenak izenpe ditzala Enkarterekin.

Lanbidek gerora susta ditzakeen eskualdeko enplegu planen eskaera bere egitea.

Beharrezkoa den barne zein kanpoko esparru guztietan, berak ordezkatzeko eskualdea.

BILDU”.

Bozkatu dute gai hori bilkurako aztergaien zerrendan sartzea, eta bertaratuek aho batez erabaki dute berau sartzea.

Mozioa irakurri ondoren, alkateak eztabaidari ekin dio, eta adierazi du eskualdean baliabide batzuk hedatuta daudela. Hala ere, ona litzateke multzo gisako ikuspegia izatea eta lau urtean behin hautatutako ordezkari publikoak dauden tokian biltzea. Horixe dio mozioak.

EAJko bozeramaile Juan Carlos Hurtado jaunak uste du Enkarterri Green foroan aurkeztu behar dela hori, bertan bildu garelako udal guztiak. Eta mozio hau onestek agian foroa oztopatzea ekarriko du, baina uste du Enkarterri Greenen jorratu behar dela.

Alkateak erantzun dio Enkarterri Greenen aurkeztu dela jada.
Bozketa egin dute:

Aldeko botoak: Bilduren 6.

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: 5; AEIren 3 eta EAJren 2.

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz erabaki da onestea Bilduk aurkeztutako mozioa, Mankomunitatea eskualdeko jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko buru izateari buruzkoa.

12.- GALDE-ESKEAK.